

PROYDE-PROEGAREN Urteko Plana

2020-2021

PERTSONAK

1. HELB.	Proegarekin lan egin edo erlazionatzen diren pertsonak informatu.	
	ARDURADUNAK eta JARDUERAK	EGUTEGIA
	PATRONATU JUNTA: bilerak	2020.09.18 2020.12.16 2021.03.24 2021.06.22
	1.1. Kudeaketa-taldeak	
	1.1.1. Patronatu Juntak bere bileretan hartu dituen orientabideen eta erabakien berri emango die tokiko Delegatuei.	Ikus 7.1.1
	1.1.2. Tokiko Ordezkaritzekin lankidetzan urteko memoria burutuko du.	
	1.1.3. Web orrian zintzilikatuko du Memoria.	
	1.1.4. Sustatu prestatuko du urtero eta inprimatuko.	Martxoa 2021
	1.1.5. Sustaturen zabalkundea ziurtatuko du Ordezkaritzetan, Ikastetxeetako familietan eta salletar elkarteetan, batez ere formatu digitalaren bitartez.	Martxoa 2021
	1.1.6. Proegaren Web orria eguneraturik mantenduko du.	
	1.1.7. Proegaren Web orria berriztatuko du.	2020 Irail-Azaroa

2. HELB.	Proegarekin lotura duen boluntarioria sustatu eta boluntarioen formazioa.	
	ARDURADUNAK eta JARDUERAK	EGUTEGIA
	2.1. Kudeaketa-taldeak	
	2.1.1. Gogoeta egingo du dagokien organoekin alderdi hauei buruz: <ul style="list-style-type: none"> – Gonbita pertsonalak nola egin, bereziki gure hezitzaile gazteei. – Udako Proiektuen deialdiak. – Arduradunen eta Zentronen inplikazioa prozesu honetan. 	
	2.1.2. Formazio-topaketak bideratuko ditu boluntarioekin Salletar Boluntarioen Planari jarraituz.	
	2.1.3. Salletar Boluntarioen Planarekin zerikusia duen lege-markoa inplementatuko du.	
	2.1.3.1. Egoitzako boluntarioak	
	2.1.3.2. Ordezkaritzetako boluntarioak	
	2.1.3.3. Udako Proiektuetako boluntarioak	
	2.1.4. Segurtatuko du udako proiektuetan parte hartuko duten 21 urtetik goragoko boluntarioen prestakuntza eta formazioa.	2021.02.27 2021.05.29
	2.2. Kudeaketa taldeak Zonalde bakoitzeko Jende Xumeako laguntasun-taldearekin lankidetzan:	
	2.2.1. Segurtatuko du zonaldeetan, "Jende Xumea" taldeetako gazteen bi urtetako prestakuntza eta formazioa, udako proiektuan parte hartu aurretik, Bilbo Sektoreko "Jende Xumea" nazioarteko gazte boluntariorarako planari jarraituz.	
	2.2.1.1. Kudeaketa Taldeko norbait harremanetan egongo da Jende Xumea Taldeekin bai Gipuzkoan, bai Bizkaian.	
	2.2.1.2. Talde ezberdinetarako 2021eko proiektuei erantzuna eman. Eta aztertu eskura ditugun errekurtsioak.	2020-2021

3. HELB.	Genero eta berdintasun-plana sustatu	
	ARDURADUNAK eta JARDUERAK	EGUTEGIA
	3.1. Kudeaketa taldeak 3.1.1. Ezagutzera emango die tokiko Delegatuei Proegaren “Genero eta berdintasun-politika” dokumentua. 3.1.2. Tokiko talde bakoitzak inplementatuko ditu planean finkatuko printzipioak.	2020-2021

4. HELB.	Bilbo Sektoreko misiolariekin harremanak mantendu eta haien esperientziaz etekina atera	
	ARDURADUNAK eta JARDUERAK	EGUTEGIA
	4.1. Kudeaketa taldeak 4.1.1. GGKEaren jardueri buruz informaturik mantenduko ditu misiolariak. 4.1.2. Aprobetxatuko du misiolarien presentzia sektorean, ikastetxeetako sentsibilizazio jardueretarako eta erraztuko du haien presentzia komunikabideetan.	2020-2021

HEZKUNTZA PROIEKTUA

5. HELB.	Sentsibilizatu hezkuntza-elkarteetako kideak (ikasleak, familiak, irakasleak, langileak...) eta kristau eta salletar elkarteetako kideak Hegoaldeko gizarte pobretuen premien inguruan	
	ARDURADUNAK eta JARDUERAK	EGUTEGIA
	5.1. Kudeaketa-taldeak 5.1.1. Salletar, klaretar eta maristen GGKEen urteroko kanpainaren prestaketan parte hartuko du. 5.1.2. Bera arduratuko da materialak euskaratzeaz eta haien egokitzapenez. 5.1.3. Urteko kanpaina eta jarduera esanguratsuenak Zuzendari Taldeari eta Pastoral Delegatuei aurkeztuko dizkie. 5.1.4. Sentsibilizatorako materialak tokiko Delegatuei aurkeztuko dizkie eta eskura jarriko, eta haien erabilera ebaluatuko du. 5.1.5. Gabonetako postalak argitaratuko ditu eta horiei lotutako garapen-proiektuaren berri emango. <i>Togo iparraldeko neska-mutilen hezkuntza-programa.</i> 5.1.6. Programatu eta prestatuko ditu 21 urtetik goragoko boluntarioentzako udako proiektuak eta deialdia bidaliko Ordezkaritzetara. 5.1.7. “Garapenerako Hezkuntza”ri buruzko gaietan, Proyde Zaragoza-Errioxarekin koordinatuko da Sektoreko obretan. 5.1.8. Gure Zentroetako hezitzaile guztientzako informazio-bideak ahalbideratuko ditu. 5.1.9. Tokiko Taldeekin batera parte hartuko du Tandanacui taldeen sustapenean eta Jende Xumea sustatzeko esperientziak ahalbideratuko ditu.	2020-2021 Iraila 2020 Urr.-Azaroa 2020 Urr.-Azaroa 2020 Azaroa 2020
	5.2. Tokiko Taldeak 5.2.1. Sentsibilizazio-kanpaina ikasleei eta hezkuntza-elkarte osoari helaraziko diete. 5.2.2. Tandanacui taldeak sustatuko dituzte ahal den lekuetan.	2020-2021
	5.3. Kudeaketa-taldeak eta Tokiko Taldeak 5.3.1. Zonalde bakoitzean “Jende Xumea” taldeak sortzea bultzatuko dute, Tandanacui taldeen jarraipen gisa, udako proiektuetan parte har	2020-2021

	<p>dezaten, helduen laguntasunez. Kontuan hartu beharko da 2021 udako egoera berezia...</p> <p>5.3.2. Jende Xumea-taldean laguntasun-taldeak segurtatuko ditu.</p> <p>5.3.3. Jende Xumeako udako boluntarioek beren esperientzia partekatuko dute zonaldeko pertsona eta taldeekin.</p> <p>5.3.4. Beste GGKEekin lan egingo dute sentsibilizazio-gaietan.</p>	
--	---	--

6. HELB.	Bidezko Merkataritza sustatu	
	ARDURADUNAK eta JARDUERAK	EGUTEGIA
	<p>6.1. Kudeaketa-taldeak</p> <p>6.1.1. Bidezko Merkataritzako ekintzak koordinatuko ditu.</p> <p>6.1.2. Bidezko Merkataritzaren web orrialdearen erabilera sustatuko du.</p> <p>6.1.3. Bidezko Merkataritzaren aldeko Ikastetxeak kanpaina sustatuko du.</p> <p>6.1.4. Bidezko Merkataritza Obretako eta Zonaldeetako une esanguratsuetan presente egotea bultzatuko du.</p>	2020-2021
	<p>6.2. Tokiko Talde bakoitzak</p> <p>6.2.1. Bidezko Merkataritzaren garapena sustatuko du bere Ordezkaritzan.</p> <p>6.2.2. Bidezko Merkataritzaren aldeko Ikastetxea Ziurtagiria lortuko du edo eraberrituko du.</p>	2020-2021

ANTOLAKUNTZA

7. HELB.	Indartu eta koordinatu Tokiko Ordezkaritzak	
	ARDURADUNAK eta JARDUERAK	EGUTEGIA
	<p>7.1. Kudeaketa-taldeak:</p> <p>7.1.1. Hilean bi bilera, gutxienez, izango ditu Fundazioaren kudeaketarako.</p> <p>7.1.2. Tokiko delegatuekin aldizkako bilerak egingo ditu. Beraietan "praktika onak" partekatuko dira.</p> <p>7.1.3. Gogoeta egingo du Pastoral Delegatuekin eta tokiko Delegatuekin Proega Taldeen bideragarritasunez.</p>	<p>2020.10.05</p> <p>2021.01.25</p> <p>2021.04.26</p>
	<p>7.2. Ordezkaritza bakoitzean</p> <p>7.2.1. Tokiko Delegatuak GGKEaren tokiko Taldea osatuko du.</p> <p>7.2.2. Tokiko Taldeak urteko ekintzen plana egingo du eta ezagutzera emango bitarteko ezberdinen bidez (Web, sare sozialak, bilerak) ikasturtearen hasieran eta ikasturtean zehar zentroko estamentu ezberdinei (Klaustroa, Salletar Elkarte, familiak).</p> <p>7.2.3. Tokiko Taldea Ordezkaritzako Proegaren ekintzetan boluntario gehiago inplikatzeko ahaleginduko da.</p> <p>7.2.4. Tokiko Taldeak informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak sustatuko ditu bere ingurunean.</p>	2020-2021
	<p>7.3. Kudeaketa-taldeak eta tokiko Taldeak</p> <p>7.3.1. Proegaren presentzia bultzatuko dute komunikabideetan.</p>	2020-2021

8. HELB.	<p>Herrialde pobretuetan garapenerako lankidetzako proiektuak lantzen jarraitu, bereziki Afrika, Latinoamerikan eta Ekialde Hurbilean, eta batez ere hezkuntzaren eta emakumearen sustapenaren eremuetan. Tokiko erakunde hauekin:</p> <ul style="list-style-type: none"> - FEC Benin (Benin) - BELACD, Lai (Txad) - ESMABAMA (Mozambike) - RELAF (Hego Sudan)
----------	---

	<ul style="list-style-type: none"> - Prodesa (Guatemala) - FLS (Argentina - Paraguai) - Fratelli (Libano) 	
	ARDURADUNAK eta JARDUERAK	EGUTEGIA
	<p>8.1. Kudeaketa-taldeak</p> <p>8.1.1. Proyderekin koordinatuz, garapen-, larrialdi- eta ekintza-humanitarioetako proiektuak prestatuko ditu, erakunde publikoetan (autonomiko, probintzietako, udaletako) nahiz pribatueta aurkezteko.</p> <p>8.1.2. Garapenerako hezkuntza-proiektuak aurkeztuko ditu udal ezberdinetan.</p> <p>8.1.3. Bere funts propioekin kolaboratuko du horietako proiektu batzuetan.</p> <p>8.1.4. Bere funts propioak jarriko ditu erakunde publikoek finantzatzen ez duten beste proiektuetan.</p> <p>8.1.5. REDESein harremanetan (Red de Entidades para el Desarrollo Solidario – Garapen Solidariorako Erakundeen Sarea), zenbait GGKEen artean partekatutako diren proiektuetan parte hartuko du.</p>	2020-2021

9. HELB.	Herrialde pobretuetarako lankidetzaz eta garapenerako proiektuetarako funtsak bilatu, tokiko Ordezkaritzetan egiten diren sentsibilizazio-kanpainen eta beste jardueren bitartez.	
	ARDURADUNAK eta JARDUERAK	EGUTEGIA
	9.1. Kudeaketa taldeak sektoreko jarraipen ekonomiko taldearekin batera errekurtsioak sortzeko plan bat burutuko du.	2020-2021
	<p>9.2. Kudeaketa-taldeak tokiko Taldeekin batera</p> <p>9.2.1. Bazkide ongileak erakartzen jarraituko dute.</p> <p>9.2.2. Enpresei aurkeztuko die Erantzukizun Sozio-korporatiboan (RSC) parte hartzeko posibilitatea.</p> <p>9.2.3. Funtsak eskuratzeko praktika onak partekatuko dituzte.</p>	2020-2021
	9.3. Tokiko Taldeak jomugak jarriko ditu sentsibilizazio jardueretan eta beraiekin loturik diren diru-bilketetan.	2020-2021

10. HELB	GGKEen koordinakunde-plataformetan parte hartu.	
	ARDURADUNAK eta JARDUERAK	EGUTEGIA
	<p>10.1. Kudeaketa-taldeak Proegaren presentzia segurtatuko du</p> <p>10.1.1. Salletar GGKEen Koordinazio-batzordean.</p> <p>10.1.2. Kanpainako materialen burutzapen-batzordean (Salletar, klaretar eta maristen GGKEak).</p> <p>10.1.3. Euskadiko GGKEen Koordinakundeetan, Pobrezia Zero taldean...</p> <p>10.1.4. Gipuzkoa eta Bizkaiko REDES Koordinakundeetan.</p> <p>10.1.5. Bidezko Merkataritzaren Koordinakundeetan.</p>	2020-2021
	10.2. Tokiko Taldeek segurtatuko dute Proegaren presentzia tokian tokiko plataformetan.	2020-2021

11. HELB	Aurrera jarraitu Proyde-Proegaren integrazioan Bilbo Sektoreko Hezkuntza Sarean	
	ARDURADUNAK eta JARDUERAK	EGUTEGIA
	<p>11.1. Auditoretza ekonomikoa egingo du Sektoreko irizpideei jarraituz.</p> <p>11.2. Hezkuntza Sareko ekosistema teknologikoan parte hartuko du.</p> <p>11.3. Hilero jarraipen ekonomikoa egingo du.</p>	2020-2021